

# Adingabeak eta INTERNET



**Internet TRESNA INDARTSUA DA komunikaziorako, informazioa bilatzeko eta ikasteko.**

**Alabaina, bizitza errealean gertatzen den moduan, adingabeek ARRISKUAK ERE topa ditzakete Interneten.**

**Internet modu seguru eta arduratsuan erabiltzea ezinbestekoa dela transmititu behar diegu.**

## ADINGABEEN OHITURAK

Batez ere ondo pasatzeko, informazioa izateko eta beste hainbat pertsonarekin komunikatzeko erabil ohi dituzte adingabeek teknologia berriak. Hona hemen ohikoenak diren erabilerak:

- \* **GIZARTE SAREAK.** (Whatsapp, Facebook, Twitter, Instagram, YouTube, Tuenti, ...).
- \* **ON LINE JOKOAK.**
- \* **INFORMAZIOA BILAKETA** ikasketarako edo bere jaki-nahia asetzeko.



Normalean etxetik konektatzen dira ordenagailuaren edo tabletaren bidez baina mugikorraren bidez, etxetik kanpo ere konektatzen dira.

## INTERNETEN ALDERDI POSITIBOAK

- \* **INFORMAZIO ETA IKASKETA ITURRIA:** Berehala izan dezakete informaziorako sarbidea (lanak edota etxeko lanak egiteko, beste hainbat leku ezagutzeko, eta abarrerako).
- \* **BESTE HAINBAT PERTSONAREKIKO KOMUNIKAZIOA:** adiskideekin, senitartekoekin, munduko beste hainbat tokitako pertsonekin eta abarrekin.
- \* **MUGARIK GABEKO DIBERTSIOA:** musika, jokoak, irudiak, pelikulak eta abar aurki ditzakete, hots, ondo pasatzeko asko eta asko.



**PERTSONA HELBURU**

## ARRISKU OHIKOENAK

- \* **BIRUSAK ETA TROIARRAK.** Batik bat, jokoak, musika eta abar jaistean. Horrelakoak saihesteko, antibirusa oso maiz eguneratu behar da eta deskargak webgune ofizialetan egin.
- \* **INTERNETEKO JAZARPENA.** (Eskola-jazarpena Internetera hedatua). Prebentziorik onena adingabeengan uste osoa izatea da.
- \* **EDUKI DESEGOKIETARAKO SARBIDEA IZATEA** . Pornografiara, indarkeriara, ankerkeriara edota arrazakeriara bultzatzean duten materialak. Iragazkien bitartez muga dezakegu sarbidea.
- \* **MENDEKOTASUNA.** Gero eta maiztasun handiagoz gertatzen ari da fenomeno hori, eta askotan, beste hainbat arazo ezkututzen ditu (harremanetakoak, psikologikoak, eta abar). Beharrezkoa bada, profesionalengana jo.



## GOGOAN IZAN...

- ◆ Irakats iezaiozu sareak eskaintzen dituen aukerak **APROBETXATZEN**. Har ezazu denbora, onura eta arriskuei buruz **FAMILIAREKIN HITZ EGITEKO**.
- ◆ **KONFIANTZA** giro sortu zure seme-alabarekin, arazoak edukitzekotan zure **LAGUNTZA** eskatu ahal izateko.
- ◆ **PRIBATUTASUNEAN HEZI**. Azal iezaiozu bere **DATUAK** nola **BABESTEN**.
- ◆ Beste pertsoneri **MEHATXUAK**, beldurrak eta erasoak eragitearen ondorioak ohartarazi. Kasu hauek **SALATU** ahal eta behar direla jakinarazi. **ERTZAINZA**ren edozein komisarian edo emailaz egin dezakegu: [di@ertzaintza.eus](mailto:di@ertzaintza.eus)
- ◆ Emaiozu **GASTUARI** lotutako **ERANTZUKIZUNA**

## Informazio gehiagorako:

[www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)

Kontsumoko Euskal Institutua.

[www.is4k.es](http://www.is4k.es)

Adingabe koentzako INTERNETEKO SEGURTASUN ZENTROAREN.

[www.osi.es](http://www.osi.es)

Internautarentzako Segurtasun Bulegoa.

[www.ertzaintza.eus](http://www.ertzaintza.eus)

Euskadiko polizia.